



IRAGARKIA

Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas-jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legearen arabera, Eusko Jaurlaritzak establezimendu publikoen ordutegi orokorra erabakitzeko eskumena du, dibertimendu- eta aisialdi-jardueren eta enpresariak beren jarduera garatzeko duten eskubidearen eta herritarren atseden eta lasaitasunerako eskubidearen arteko orekari eusteko.

Hala, abenduaren 16ko 296/1997 Dekretuaren bidez (210/1998 eta 36/2012 Dekretuek aldatua), ostalaritza-establezimenduen irekiera- eta itxiera-ordutegiak ezarri ziren, haien establezimendu- edo jarduera-lizentzia zein den dagokien taldearen arabera; ordutegiok urte-sasoia arabera (ekainaren 1etik irailaren 30era) eta egun arruntak edo ostirala, larunbata eta jaiegun-bezpera diren kontuan hartuta aldatzen dira.

Taldeak hauek dira:

- 1. TALDEA: adingabeentzat berariaz baimendutako lokal eta instalazioak, edo alkoholik gabeko edariak eta elikagaiak saltzeko baimena dutenak, jatetxe-jarduerarik garatu gabe.
- 2. TALDEA: edari alkoholodunak saltzeko edo jatetxe-esparruko jarduerak egiteko baimena duten lokal eta instalazioak.
- 3. TALDEA: jarduera berezi gisa musika izateko baimena duten lokal eta instalazioak, dantza-pistarik gabek.
- 4. TALDEA: musika izateko edo ikuskizunak egiteko baimena duten lokal eta instalazioak, dantza-pista dutenak.

Irekiera- eta itxiera-ordutegiak:

	1. TALDEA	2. TALDEA	3. TALDEA	4. TALDEA
NEGUA				
Arrunta	06:00 - 23:00	06:00 - 01:00	*-02:30	*-04:30
Ostirala, larunbata eta jaiegun-bezpera	06:00 - 00:30	06:00 - 02:30	*-04:00	*-06:00
UDA				
Arrunta	06:00 - 23:30	06:00 - 01:30	*-03:00	*-05:00
Ostirala, larunbata eta jaiegun-bezpera	06:00 - 01:00	06:00 - 03:00	*-04:30	*-06:30

* Ezarritako itxiera-ordutegiaren, benetan ixten den ala ez alde batera utzita, eta berriz irekitzen den orduaren artean 6 ordu igaro beharko dira, gutxienez.

Hala erabiltzaileentzako informazioa argitzeko nola kontrola eta zaintza ahalbidetzeko, ostalaritzako eta jendaurreko ikuskizunetarako lokalek zein taldetakoak diren aditzera emateko identifikazio-bereizgarria ezarri beharko dute establezimenduaren kanpoaldean. Horrez gain, barrualdean eta erraz ikusteko moduko toki batean, lokalaren irekiera- eta itxiera-ordutegia agertzeko kartela jarri beharko dute.

2 ORDU GEHIAGO JAIEGUN BEREZETAN

Aipatu Legearen 18. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, **Udalek jaietan eta bestelako ekitaldietan establezimenduen ordutegi orokorra luzatzeko ahalmena dute**, araudiaren arabera aurreikusitako kasu eta moduetan. Bestalde, abenduaren 16ko 296/1997 Dekretuaren 12. artikulua arabera, udal-agintariak **2 orduz luza dezakete, gehienez**, aurreikusitako ordutegia, festa jakin batzuetan, hala nola inauterietan, danborradan, San Juan gauean, herriko jaietan, Gabonetan eta bestelako jai-ekitaldi edo interes turistikoko ekitaldietan, udal-organoei erabakitakoaren arabera.

Hala, Alegria-Dulantzi Udalak onartu du, 2025eko urtarrilaren 29ko gobernu-batzordean, 2 orduz luzatzea udalerririk barruko establezimendu publikoen itxiera-ordutegia, 2025. urtean honako ekitaldi hauek ospatzen direnean: SAN BLAS (otsailaren 1a), INAUTERIAK (martxoaren 1a), DANBORRADA (apirilaren 26a), SAN JUAN (ekainaren 21a), HERRIKO JAIK (irailaren 12, 13, 14, 19 eta 20a), KINTOAK (urriaren 18a), HALLOWEEN (urriaren 31) eta EGUBERRIAK (abenduaren 24a eta 31). Hona hemen ordutegiak:

- **Beranduezez ixteko ordua goizaldeko 4:30ean:**
 - otsailak 1 (San Blas).
 - martxoak 1 (Inauteriak).
 - apirilak 26 (Danborrada).
 - urriak 18 (Kintoak).
 - urriak 31 (Halloween).
 - abenduak 24 eta 31 (Eguberriak).

- **Beranduezez ixteko ordutegia goizaldeko 5:00etan:**
 - ekainak 21 (San Juan).
 - irailak 12, 13, 19 eta 20 (Herriko Jaiak).





- **Beranduenez ixteko ordutegia goizaldeko 3:30ean:**
 - irailak 14 (Herriko Jaiak).

- **Establezimendua ixteko ezarritako ordua iritsitakoan, musika itzali egin beharko da.**

Herritar guztiak jakinaren gainean egon daitezen argitaratua.

Alegria-Dulantzin, 2025ko urtarrilaren 29an
ALKATEA
Izpta.: Joseba Koldo Garitagoitia Odria
ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA

